

ENPRESEN KONFIANTZA

Txertoaren etorrerak Europako herrialdeen igurikimenak hobetu ditu


Euroaren eremuko PMI konposatuak hobekuntza nabarmena izan zuen abenduan, aurreko hileko 45,3tik urtea amaitu zeneko 49,1era igaro baitzen. Balio hori 50. mailatik beherakoa da, eta, beraz, ekonomia oraindik uzkuertze eremuan dagoela adierazten du, baina Europako enpresen aurreikuspenetan zerbait aldatzen ari dela iradokitzen du.

Markit-en galdetegiari emandako erantzunek argi uzten dute manufakturen (55,2) aise gainditu dituztela joan den udaberriko zailtasunak, eta 2018ko erdialdetik izandako daturik altuena erregistratu dutela. Aitzitik, zerbitzuek (46,4) irudi kezagarria ematen dute oraindik, azaroko datuekin alderatuta ia bost puntu hobetu diren arren.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2020ko ABENDUA:


49,1




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Murrizketak eta gizarte urruntzeko neurriak dira eskaera berriak behar beste ez handitzeko azaldu dituzten arrazoiak. Aitzitik, txertoen etorrerak baikortasuna hobetu du hamabi hilabete barru aurreikusitako jarduerarekiko. Baikortasun hori 2018ko apiriletik izandako handiena da.

Herrialdeka aztertuta, nabarmentzekoa da Frantzia eta Espainian hauteman den suspertzeko joera bizia, hurrenez hurren, 49,5ean eta 48,7an kokatu direlako. Bi herrialde horietan, zerbitzuak ez dira oraindik suspertu, baina hilabete bakar batean hamar puntutan (Frantzia) eta bederatzi puntutan (Espainia) hobetu dute egoera. Italian, ordea, ez da hobekuntza nabarmenik izan.


PMI KONPOSATUA. ESPAINIA



PMI KONPOSATUA. ITALIA



PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Markit.